



## ■ LUDOTEKA

**Jolasak, 4 egunez**  
Kiroldegia jolas-toki bihurtuko da abenduaren 26tik 29ra. Ludoteka izango da 10:00etatik 13:00etara. ||

## ■ AEK

**Mariskada, opari!**  
Zozketa egingo du urtero bezala AEK-k, gaurkoan. Mariskada irabazteko errifak salgai izango dira Plaza Berrin 11:30etatik 14:00etara, eta Plazan, 18:30etatik aurrera. Zozketa manifestazioaren ondoren egingo da. ||

## ■ SAN JOAN KONPARTSA

**Saridunak epea, urtarrilera arte**  
Santo Tomas egunean zozketa zuten San Joan Konpartsak errifa; itsuen errifa saridunaren azken lau zenbakiakin bat egiten duena da irabazlea, 1330 zenbakia. Irabazleak urtarrilaren 21era arteko epea du deitzeko: 695 753 138. ||

## ■ ATLETISMOA

**23.000 euro irabazita, loterian**  
Atletismoa CD Hernani taldearen loteria erosi duenak badauka saria! 23.000 euro tokatu dira, 16.244 zenbakia bigarren sariko zenbakiarekin (51.244) bat baitator. Errifa bakoitzaren saria 20 eurokoa da. Errege eguna pasata egingo ditu klubak ordainketak, lokalean. ||

## ■ ERRUGBIA

**Denda, irekita**  
Erugbi elkarteak denda jarri du aurten ere, eta irekita egongo da, Errege bezperara arte, arratsalde 17:00etatik 20:00etara. Gaur, hilaren 30ean eta urtarrilaren 5ean, goizez ere irekiko dute, 10:00etatik 13:00etara. ||

## ■ GAZTETXEA

**Bi festa, gaez**  
Festa giroa izango da Kontrakantxa Gaztetxean, gaur eta bihar gaezan. Gaur, Gau Elektrokoiak izango da gaeke 01:00ean hasita, Paket Flat kolektiboaren eskutik; biharkoa, berri, Molotoff irriatirena. ||

## ■ GABON EGUNA

# Olentzerori kantari, ongietorria Gabon gauari

Kantuan aterako dira gaur Txirrita, Elizatxo, Inmakulada, Langile eta Urumeako ikasleak. Baita Kantuz abesbatza eta Bertso Eskolako kideak ere. Olentzero 18:00etan iritsiko da.

GOIZEAN goizetik hasiko dira hernaniarrak Olentzerori kantari. Bizkarrean hartuta eramango dute herriko txoko guztietara; gero opariak non utzi jakin dezan izango da!

### Ikasleak, aurrenekoak

Gabon doinuak kantatuz kalejiran aterako diren aurrenekoak eskoletako ikasleak izango dira. Ereñotzuko Txirrita eskolan 09:30etan jarri dute zita; Inmakuladan, 10:00etan; Langile ikastolakoak 11:00etan abiatuko dira Txantxillatik; eta Elizatxokoak, berri, 11:45etan eskolatik.

Eguerdiko 12:00etan Kantuz abesbatzak egingo du bat guztiekin, Milagrosatik aterata. Eta Hernaniko Iraulio Panttalone Bertso Eskolakoak 15:30etan aterako dira Biteritik, baserri joateko.

### Olentzero, Ttarla, Musika Banda, eta manifestazioa

Azkenean, Olentzero 18:00etan



'Hernani' Musika Eskola Publikoko ikasleek ostiralean egin zuten Gabonetako kalejira.

iritsiko da Hernanira, eta Ttarlako dantzarekin kalejira egingo du. Olentzero berak oharra bidali du: «19:00ak aldera udaletxeko arkupeetan zuten gutun eta muxu guztiak jasotzeko tartea izango dut,

baina gero etxe guztietara heldu behar dut, eta beraz, aurtengoan ere ez naiz berandu arte geratuko arkupeetan; 20:30ak arte egongo naiz han, zuten esperoan».

Olentzero arkupeetan da-

goen bitartean, Sarek deituta manifestazioa aterako da presoan alde, 19:30etan plazatik.

Azkenik Hernaniko Musika Banda aterako da 20:00etan plazatik, Gabon Gaueko erronda egitera. ||

## ■ KONTRAKANTXA GAZTETXEA HERNANIKO GAZTE MUGIMENDUEN JARDUNALDIAK

# Hitzaldi, tailer eta jolasak, gazte jardunaldietan

Aurreneko Hernaniko Gazte Mugimenduen Jardunaldiak egingo dira Gaztetxean, lau egunez.

HERNANIKO Gazte Mugimenduen aurreneko Jardunaldiak, Kontrakantxa Gaztetxean, eta bertan hainbat gairi buruz hausnartu, eta era berean, ondo pasatzeko ekitaldiak izango dira. Herritar guztiak dei egin diete gerturatu eta parte hartzera animatzeko. ||

Datorren astean, abenduaren 27tik 30era egingo dituzte Hernaniko Gazte Mugimen-

### ABENDUAK 27

11:00 Irekiera gosaria.  
12:00 Hitzariak: Euskararen zapalkuntza historikoa.  
17:00 Muxutruk-en aurkezpena.  
20:00 Presoen inguruko afari-merienda.

### ABENDUAK 28

10:00 Tailerrak.  
17:00 Ur-Umea txostenaren aurkezpena (Hezkuntza Kritikoa).  
19:00 Urrunegi: Okupazioa emaztipaziora bidean.  
EMAKUMEEN\* GAUA

### ABENDUAK 29

10:00 Kontrakantxa Gaztetxea: Hausnarketa Prozesua.  
17:00 Kanika Iraultza!  
18:30 Drogen inguruko tailerra (Grabaketa).  
22:00 Wukroren aldeko Jam Saioa.

### ABENDUAK 30

10:00 Gazte Bizilagunak: Zurrumurruak.  
16:00 Kontrakantxa Gaztetxea: Hausnarketa Prozesua.  
21:30 Itxiera.  
22:00 Afari eta bertso tailerra.

**Samitek**  
Balgo makinen salmenta eta mantentzeak  
[samitek@samitek.es](mailto:samitek@samitek.es)  
[www.samitek.es](http://www.samitek.es)  
TOSHIBA  
INFORMATIKA SAIL BERRIA  
943 11 77 44  
Dokumentuen kudeaketa  
Ez galdu paperak

**OINDI**  
Astelehenetik ostiralera  
08:00etatik aurrera  
irekita  
taberna  
NAGUSIA, 25  
HERNANI  
943 557 509

**Aitor Ruiz de Eguino**  
OPARI ARTISTIKOAK  
ESKULTURA, PINTURA, ZERAMIKA  
Prezioak web orrian, %20 deskontua  
Santa Barbara 58, Hernani  
[www.aitorruizdeegino.com](http://www.aitorruizdeegino.com)  
685 76 82 45

**kronikalari**  
BAT  
**€uro**  
BAT  
AZAROAREN 18TIK ABENDUAREN 27RA

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103  
 ✚ **GAUR:** / Egunez: **Aguado** ASTIGARRAGA Nagusia, 21 **943 550327** / **Gauz:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**  
**BIHAR:** / Egunez: **Odriozola** URNIETA Idiazabal, 18 **943 334014** / **Gauz:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**

**EGURALDIA** **GAUR** Eguzkitsu egingo dio ongetoria Olen-teron, zeruak ere. Lainoren bat sortu daiteke itsasertean, hala ere. Hegoaldeko haizea ibiliko da eta epeldu egingo du. **Min.6° / Max.14°**  
**BIHAR** Goizean zenua garbi izango da eta hotz egingo du. Arratsaldean, ordea, pixkana lainotzera egingo du eta gauean eurtara joko du. **Min.6° / Max.14°** (euskaime)

## UDALA ELIZATXO-PORTU AUZOETAKO MUGIKORTASUNA

# Portu eta Elizatxorako proposamenen helburua, «eremu jasangarri eta atsegina egitea»

Lehenengo urtean hasitako lanketarekin jarraitzeko batzordea eratuko dute Udalak eta auzotarrek, Elizatxo eta Portuko mugikortasun arazoari aurre egiteko proposamenak martxan jartzea adosteko.

ASPALDIKOA da Portu eta Elizatxo auzoetako bizilagunen eskaera, Leokako labaderoa eta Portuko Shangai taberna bitartean sortzen diren mugikortasun arazoak konpontzeko.

2016ko udaran Udalak proposamen bazuk egin zituen, baina bizilagunak ez ziren gustora geratu, eta denon artean lanketa egiten hasi ziren. Hainbat proposamen egin dira, eta orain batzorde bat sortzea dute helburu.

### Noiz hasi martxan, batzordearen esku

Hiru dira inguru horretako korapilo haundienak: Elizatxo ikastolako sarrera eta irteera orduetan sortzen diren trafikoa



Astelehenean egin zuten azken bilera, proposamenak ezagutzeko.

eta oinezkoen arteko elkarbizitza arazoa; trenbide azpiko tunelak daukan arriskua

oinetako eta ibilgailuak batera pasatzen direnean; eta Portu auzoko irteeratik Shangai

tabernara arteko oinezkoentzako eremurik eza.

Hori guztia konpontzeko hainbat bilera egin ditu Udalak auzotarrekin, GA 21 enpresako mugikortasun teknikariak eta Dunak enpresako dinamizatzaileek lagunduta. Azkenekoa, pasa den astelehenean.

Denen artean hainbat proposamen egin dira, eta laster batzorde bat sortuko dute, guztia nola eta noiz jarri martxan adosteko. Helburuak, Koro Etxeberria zinegotziak azaldu bezala dira: «oinetakoen ziurtasuna bermatzea, bizilagunei ahalik eta traba gutxien sortzea, eta eremu jasangarri eta atsegina egitea guztiontzat». Datozen hilabeteetan emango dira hurrengo pausoak. ||

## AMHER

### Zurumurruei buruz, bertso saioa

Amherrek dei egin du ostegunean Donostiako Antzoki Zaharrean egingo den bertso saio berezira joateko. Zurumurruei inguruan ariko dira bertsoan Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Igor Elortza, Unai Agirre, Alaia Marin, Jon Maia eta Maialen Arzallus. Saioa 17:30etan hasiko da, eta sarrerak 10 euroan daude salgai. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**Alokatzeko apartamentua behar da Hernanin, lagun bakarrarentzat. Deitu: 618 207 409**

**Taberna alokagai, erosteko aukerarekin. Karmelo labaka kalean, Hibai taberna. Deitu: 943 21 78 56**

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**PEDRO OLALDE TEJEDOR**  
 JAUNA  
 'Pedrin'  
 Herenegun hil zen, 65 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta  
 - Goian Bego -  
 Emaztea: M<sup>a</sup> Carmen García; seme-alabak: Oihana eta Urko, Ane; biloba: Hodei; amaginarreba: Edurne; arreba: M<sup>a</sup> Antonia eta Diego; ezkon anai-arrebak: Luis Mari eta Mari Carmen; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.  
 Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **ETZI, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
**Hernanin, 2017ko abenduaren 24an**  
 OHARRAK: Gorputza Errekaldeko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da gaur goizeko 10:30ak arte.

**PEDRO OLALDE TEJEDOR**  
 Muxu haundi bat familiari.  
**ANEREN KOADRILA**  
**Hernanin, 2017ko abenduaren 24an**

**PEDRO OLALDE TEJEDOR**  
 "PEDRIN"  
 Bizitza oso bat izan zara gure artean. Ezin adierazi hitz xume hauetan guretzako zer suposatu duan, zenbat momentu bizi izan ditugun elkarren babesean.  
 Zure irrifarra ta maitasuna beti izango degu barru-barruan.  
**BENTA BERRIKO ZURE SENIDEAK**  
**Hernanin, 2017ko abenduaren 24an**

**PEDRO OLALDE TEJEDOR**  
 "PEDRIN"  
 Orain badezu aukera nahi dezun bezala izarrak margotzeko. Agur, Pedrin.  
**OZENKI ABESBATZA**  
**Hernanin, 2017ko abenduaren 24an**

**Joaquin Iceta Pagola**  
 1963ko urriaren 11n hil zen  
**Joxe Igarritz Etxeberria**  
 2004ko abenduaren 25ean hil zen  
**Mayi Pikabea Ducaz**  
 2011ko urtarrilaren 1ean hil zen  
 Aspaldi joan zineten, baino betirako zaudete, gure bihotzean, maite zaituztegu  
**ZURE EMAZTE, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA BIRLOBAK**  
**Hernanin, 2017ko abenduaren 24an**

**II. URTEURRENA**  
**Roxario Iradi Abalabide**  
 (Joxe Ansaren alarguna)  
 Pertsona aparta izan zirelako Eskerrik asko ama, zuregandik ikasi genuenagatik.  
**ETXEKOAK**  
**Hernanin, 2017ko abenduaren 24an**

**PEDRO OLALDE TEJEDOR**  
 "PEDRIN"  
 - Goian Bego -  
 Gure bihotzaren erdian zaudete, orain eta betiko.  
**ZURE BETIKO LAGUNAK**  
**Hernanin, 2017ko abenduaren 24an**